



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, EUSKADIKO SENDAGILEEN KONTSEILUAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Laburpena:

I. AURREKARIAK.....	1
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK	2
III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK.....	4
A. Kontseiluaren berezko eginkizunak.	4
B. Kontseiluak bere barruko Elkargoetako kideekin bidegabe jokatzea	6
IV. ONDORIOAK	7

Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, zeinak arestian aipatutako osaera baitu, Euskal Autonomia Erkidegoko Sendagileen Kontseiluaren Estatutuei buruzko txosten hau igorri du 2014ko uztailaren 7ko bilkuran.

I. AURREKARIAK

1. 2014ko ekainaren 25ean Lehiaren Euskal Agintaritzan sartu zen Toki Erakundeekiko eta Administrazio Erregistroekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren idazki bat, estatutu horiek lehia defendatzearen arloko arauekin bat datozen jakiteko.



II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Eskumen horien helburua da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira.

3. Gure antolamendu juridikoak elkargo profesionaleri buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, honako hau xedatzen du Konstituzioaren 36. artikulua: "Legeak Elkargo Profesionalen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargoetako lanbideetan lehia askea behar da, eta lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar da, bere osotasunean¹. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudi-aldaketa berriekin². Aipatutako zuzentarau horren aurretiko beste arau batzuk hartu dira oinarri profesionalen elkargoak arautzeko Estatuan zein EAEn: Profesionalen Elkargoei buruzko Estatuko Legea, 1974koa (2/1974 Legea, aurrerantzean); eta 18/1997 Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa (18/1997 Legea, aurrerantzean)³.

Dena dela, une honetan Zuzentarauaren estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako hainbat transposizio-arau daude, horiek aldaketa ugari eragin dituzte arau horietan, eta, beraz, baita elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere, batik bat Aterki (17/2009) eta Omnibus (25/2009) Legeak edo EAEko 7/2012 Legea⁴.

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, lehia defendatzekoa.

² 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

³ Estatuko 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionaleri buruzkoa. 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoa eta elkargo profesionaleri buruzkoa. 18/1997 euskal Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideen, eta elkargo eta kontseilu profesionalen jarduna arautzen duena.

⁴ 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (Aterki Legea); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege



Honako hau da 18/1997 Legearen xedea: "tituludun lanbideek EuskalAutonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena erekontuan hartu beharko da".

Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak soilik dituen eskumenak erabiliz egina da araudia, Espainiako Konstituzioaren 139. artikulua erabiliz izan gabe. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikulua horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

4. Kontseilu profesionalak —elkargo profesionalak ez bezala— ez dira Konstituzioan aipatzen. Dena dela, araudi bera bete behar dute.

Elkargo profesionalei buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan honako hau jasotzen da, Omnibus Legearen arabera: «elkargodun korporazioak izango dira Elkargoen Kontseilu Nagusia edo Kontseilu Gorena, Estatuko Elkargoak, Elkargoen Kontseilu Autonomikoak eta Elkargo Profesionalak».

18/1997 Legeak kontseiluak arautzen ditu 41. artikuluan: "Lanbideren batek elkargo-antolaketa duen guztietan izango da kontseilu profesionala —bat baino ez— osatzeko aukera. Horretarako, dagozkion elkargo profesionalak batu beharko dira.

Bigarren paragrafoak dioenez, "Kontseilu profesionalek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute, eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Autonomia Erkidegoa hartuta".

5. Elkargo profesionalek hitzez hitz bete behar dituzte Estatutuak edo Kontseiluaren gainerako arauak, eta hori beren jardun osora zabalduko da. Hori dela eta, Estatutuen testua gorabehera, elkargoek ezin dute onartu lehia



mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, lehiaren defentsarako legeria urra bailezakete⁵.

III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK

A. Kontseiluaren berezko eginkizunak.

6. 18/1997 Legearen 41.2 artikulua dioenez, "Kontseilu profesionalak nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute, eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta".

Lege beraren 42. artikulua arabera, kontseilu profesionalen berezko eginkizunak dira:

- a) Lanbidearen arau deontologiko komunak jaso eta sortzea.
- b) Bere estatutuak onartu eta aldatzea eta, atal honetako bigarren zenbakian xedatutakoarekin bat, lanbidearen jarduna arautzea.
- c) Elkargo profesionalen arteko auziak konpontzea arbitraiaren bidez.
- d) Elkargoen ekintzen aurkako errekursoak erabakitzea.
- e) Diziplina-agintea erabiltzea, 19.2 atalaren arabera.
- f) Arau-egitasmoak direla-eta Gobernuak eskatzen dizkien irizpenak egitea, 54. artikulua arabera.
- g) Kontseiluaren aurrekontuak onartzea eta elkargoek gastuetan izan behar duten partaidetza hein berekoa izan dadin, partaidetza hori zuzen zehaztea.
- h) Jarduera profesionala legezkoa eta egokia den eta elkargo profesionalen funtzionamendua zuzena den begiratzea, helburua herritarrekiko errespetua eta herritarren eskubideak zaintzea izanik. Elkargoen funtzionamenduak eragindako keaxak konpontzea.
- i) Hutsuneak betetzeko asmoarekin betiere, kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten erakundeak, zerbitzuak eta jarduerak sustatu, sortu eta antolatzea kultura bultzatzeko, gizarte- eta osasun-laguntza emateko eta lankidetzak indartzeko. Era berean, lanbiderako komenigarriak diren itun eta akordioak ere egingo dituzte administrazioarekin eta dagozkion erakunde eta entitateekin.
- j) Beste edozein legeriak agintzen dizkienak.

7. Euskal Autonomia Erkidegoko Sendagileen Kontseiluaren estatutuek 4. artikuluan dakar gai hori.

⁵ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA: *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.



4. artikulua.- Eginkizunak.

Euskadiko Sendagileen Kontseiluak, bere eremuan, indarrean dagoen legediak aitortzen dizkion eskumen guztiak onartzen ditu, eta baita administrazioak berariaz, osasun publikoa dela, mediku-jardunaren antolaketa dela eta jardun horren balore etikoen iraunaraztea dela, estatutu honetan jasotakoak bete ditzan, eskuordetzan aitortzen dizkion eskumenak ere..

Bere jardun eremuan, ondoko eginkizunak izango ditu:

1. Euskadin sendagileen ordezkari izatea.
2. Beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten elkargokideen arau deontologikoak jasotzea eta egitea.
3. Bere estatutuak onartzea eta aldatzea.
4. Mediku-jarduna antolatzea, bere eskumenen esparruan eta legeen arabera.
5. Erkidegoko Administrazioiko osasunaren eta osasun-laguntzaren arloko kontseiluetan eta kontsulta-organismoetan parte hartzea, haiek arautzen dituzten arauetan aurreikusita dagoenean eta arau horietan ezarritako baldintzetan.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko elkargoen artean sortzen diren gatazketan arbitroa izendatzea, elkargoak arbitraje-prozedurapean jartzen badira.
7. Kontseiluaren jardun-eremuko elkargoko kideen artean, edo horien eta beste pertsona batzuen artean, sortzen diren lan-auzietan esku hartzea, bitartekaritza edo arbitraiaren bitartez, betiere ukitutako aldeek eskatzen badute.
8. Elkargoen ekintzen aurka errekurtsorik jarri den jakitea eta errekurtsio horiek erabakitzea.
9. Diziplina-ahalmena erabiltzea, eragindako pertsona elkargoetako baten Gobernu Batzordeko edo Kontseiluko kidea bada.
10. Jaurlaritzak iritzipean uzten dizkion araugintza-proiektuei buruzko txostena egitea, eta administrazio-agintaritzak edo agintaritza judizialak eta Korporazio Publikoek eskatzen dizkieten guztiak, bere eskumenerako gaiekiko.
11. Kontseiluaren aurrekontuak egitea eta onartzea, eta elkargoek gastuetan izan behar duten partaidetza zehaztea.
12. Mediku-lanbidearen duintasuna defendatzea.
13. Kalitatezko zerbitzu mediko bat eskaini ahal izateko, erakunde publiko zein pribatuei ondokoa eskatzea: Elkargoko kideak bitarteko material eta pertsonal nahikoaz hornitzea.
14. Herrialdeko agintaritza publikoekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea, osasun-politikak egiten dituztenean osasun-babesa izateko eskubidea lortzeko, eta osasun-laguntza eta mediku-jarduna arautzen duen araudi eraginkorra, doia eta orekatua bultzatzea, baita medikuntzako profesionalen lanaren helburu diren aldetik jendearen interesak babesten eta aldeztan parte hartzea ere. Ildo horretan, Euskadiko Sendagileen Kontseilua osatzen duten elkargoen estatutuetan horri buruz ezarritako funtzioak ez dira alde batera utziko.
15. Gizarteari aholkuak ematea, osasunaren sustapenarekin eta babesarekin lotutako gaiei buruz.
16. Elkargoen funtzionamenduari buruz aurkeztutako kexak konpontzea.



17. Hutsuneak betetzeko asmoarekin, betiere, lanbidearekin zerikusia duten erakundeak, zerbitzuak eta jarduerak sustatzea, sortzea eta antolatzea, honetarako: kultura-, gizarte- eta ekonomia-sustapenerako; gizarte-laguntza emateko; osasun-laguntza emateko; eta elkargokideen arteko lankidetzak indartzeko.
18. Lanbiderako komenigarriak diren itunak eta akordioak egitea administrazioarekin, erakundeekin eta entitateekin.
19. Beste herrialde batzuetako organismo eta korporazioekin eta nazioarteko osasun-erakundeekin harremanak ezartzea.
20. Jarduera profesionala legezkoa eta egokia den eta elkargo profesionalen funtzionamendua zuzena den begiratzea, helburua herritarrekiko errespetua eta herritarren eskubideak zaintzea izanik.
21. Sendagileen Elkargoei eta elkargokideei ahalik eta laguntzarik eta defentsarik onena emateko behar edo komeni diren aholkularitza-zerbitzuak antolatzea, eta egokitzat jotzen diren informazio-bideak argitaratzea.
22. Lankidetzak sustatzea, batik bat, gainerako elkargoekin, guztionak diren arazoak konpontzeko eta aldarrikatzeko. Horretarako, lanbide arteko prestakuntza antolatuko dira maila guztietan, eta zenbait zerbitzu elkarrekin ematea aurreikusiko da.
23. Bere xedek betetzeko egokitzat jotzen dituen legegintza-ekimenak aurkeztea erakunde legegileen, EAEko Gobernuaren edo, dagokionean, lurralde historikoetako organismoen aurrean.
24. Intrusismoaren edota lanbidearen Kode Deontologikoaren kontrako lanbide-jardueren aurka egitea, betiere, eragindako Elkargoak eskatzen badu.
25. Etengabeko prestakuntza sustatzea, bai zuzenean, bai Elkargoen bidez.
26. Administrazioak transferitzen dizkion prestakuntza- eta/edo akreditazio-eskumenak bere gain hartzea, eta eskumen horiek behar bezala garatzeko, beharrezkoak diren batzordeak sortzea.
27. Beste edozein legek eta Elkargoek ematen dizkieten eskumen guztiak bere gain hartzea.

8. 4. artikulua 18/1997 Legeak lanbide-elkargoen kontseiluei esleitzen dizkien funtzioak gainditzeko ditu, eta beraz, Legeak ematen dizkion funtzioetara mugatu behar du.

B. Kontseiluak bere barruko Elkargoetako kideekin bidegabe jokatzeko

9. Lehia bidegabeari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 15. artikulua xedatzen duenez, «arauak urratzea» lehia bidegabea izan daiteke. 18/1997 Legearen 42. artikulua ez du Kontseiluen eginkizunen artean sartzen agiriak edo irizpenak ematea edo erakundeek edo hirugarren pertsonak eskatutako zerbitzuak egitea.

10. Euskadiko Sendagileen Kontseiluen 28.1 artikulua lehia bidegabea eragin lezake.



28. artikulua.- Euskadiko Sendagileen Kontseilua hura osatzen duten Elkargoen ekarpenen bidez finantzatuko da.

Ekarpen horiez gain, Euskadiko Sendagileen Kontseiluaren baliabideak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke.

1. Ohiko baliabideak hauek izango dira:

a) Dokumentuak eta irizpenak emateagatiko eskubideak, eta hirugarren pertsona fisiko edo juridikoek eskatuta emandako zerbitzuengatik ondoriozta daitezkeen eskubideak.

(...)

11. 28.1.a) artikuluaaren arabera, Kontseiluaren finantziazio-iturri bat izan daitezke dokumentuak eta irizpenak emateagatiko eskubideak, eta hirugarren pertsona fisiko edo juridikoek eskatuta emandako zerbitzuengatik ondoriozta daitezkeen eskubideak. Beraz, izaera profesionaleko lanak dira eta haren barruko Elkargoetako kideen ardura izan behar dute, Kontseiluak ez baitu horretarako titulurik. Kontseiluak elkargoetako kide horiei lehia egitea izango litzateke. Izan ere, bi ondorio izan ditzake Kontseiluak sendagileen berezko lan profesionalak egiteak:

- Kontseilua eragile ekonomiko bat litzateke, zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea, eta profesionalek merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin.

- Kontseiluarentzat mesedegarria eta Elkargoetako kideentzat kaltegarria litzateke, eta horrek elkargoetako kideen lehia zapuztuko luke. Sistema horren eraginez, zerbitzu jakin batzuk barnean banatuko lirateke, Kontseiluak negozioa «beretzat hartuz».

Ondorioz, ezabatu egin behar da 28.1.a) artikulua hori.

IV. ONDORIOAK

Lehena.- Elkargoetako lanbideetan lehia askea egon behar du, eta Lehia defendatzeari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea bete behar da, bere osotasunean.

Bigarrena.- Kontseilu profesionalek egiten duten tituludun lanbidearen ordezkariak eta defentsak bere oinarrian izan behar du, bere barruko Elkargoen interesa defenditzea ez ezik, bere kideek emandako zerbitzuek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestea, betiere gizartearen interes eta premia orokorrekin bat.

Hirugarrena.- Lehiaren Euskal Agintaritzak, txosten honen bidez, aipatutako 1. eta 4. artikulua aldatu eta 28.1.a) artikulua ezabatu beharra planteatzen du.